

MAKINA-ERREMINTEN HEZKUNTZA TEKNIKORAKO FUNDAZIOA

Sozietatearen izena

Makina Erreminten Hezkuntza Teknikorako Fundazioa

IFK

G20302105

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 1989ko abenduaren 21ean eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, [Elgoibarko "Makina Erreminten Hezkuntza Teknikorako Fundazioa" onartzen, sailkatzen eta Fundazioen Erregistroan inskribatzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Kabinete Teknikoko zuzendariaren 1990eko apirilaren 10eko Ebazpena betez.](#)

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8559 Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza.

Fundazioaren xedea eta helburua

Makina Erreminten Institutu experimental bat sortuz eta mantenduz Lanbide Heziketa garatzea, helburu hauekin:

- 1- Irakaskuntza arautuan, metalaren arloko ikasketak eguneratzea, makina-erreminten sektoreko beharrezanean erantzunez.
- 2- Irakaskuntza ez-arautuan, makina-erremintak egiten eta erabiltzen dituzten enpresetako langileak eta langabeak birziklatzea.
- 3- EAEko eta beste Autonomia Erkidegoetako irakasleen prestakuntza arloko eskakizunei erantzutea.
- 4- Zerbitzu bat eskaintzea, batik bat enpresa txiki eta ertainei, beste Zentro batzuen zeregina osatuz.
- 5- Irakasleen eta ikasleen trukaketak antolatzea Europako antzeko beste Ikastetxe batzuekin.
- 6- Enpresekiko harremanak modu iraunkorrean egituratzea.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Fundazio-zuzkidura

7.700.238 €


Fundazio-zuzkiduraren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 59,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 18,00
Elgoibarko Udala	% 8,00
Enpresa pribatuak eta finantza-erakundeak	% 15,00



Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
Enpresa pribatuak eta finantza-erakundeak	7/12
EAEko Administrazio Orokorra	3/12
Gipuzkoako Foru Aldundia	1/12
Elgoibarko Udala	1/12



Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	8.288.791 €
Ondare garbia	6.559.081 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	1.606.724 €
Batez besteko langile-kopurua	43

Sozietatearen helbidea

San Roke z/g, 20870 Elgoibar (Gipuzkoa).

Webgunea

www.imh.eus